

# HITZ ELKARKETA, ARGUMENTU EGITURA ETA THETA-ROLAK

Miren Azkarate

EHU eta Euskaltzaindia

## 1. Argumentu-egitura eta theta-rolak

Chomskyren (1981) ereduan eta hortik aurrera landutako proposamenetan oinarriturik, morfologian, hitz eratuak (bai eratorriak eta bai elkartuak) aztertzean ere baliatu dira *argumentu-egitura* eta *theta-rol* kontzeptuak.

Irudikapen lexiko-sintaktikoak edo *argumentu egiturak*, aditzaren *balentziaren* berri ematen du, bai eta argumentu hauen hierarkia-antolamendua ere (oro har, goren dagoen argumentuak subjektuaren funtzioa hartuko du, eta behean dagoenak, objektuarena).<sup>1</sup> Hizkuntzalariek modu bat baino gehiago proposatu dute aditzaren argumentu-egitura hiztegian jasotzeko (Spencer 1991, Artiagoitia 2000). Aukera desberdinen arteko balio-espenetan sartu gabe, Williams-en (1981) bidea hautatuko dugu, argumentu-egituraren barruan emanaz theta-rolak ere.

Egia da berez argumentu egiturak ez duela ematen aditzen edo hauen argumentuen informazio lexiko-semantikorik, baina informazio hau ELK edo egitura lexiko-kontzeptualetik proiektatzen da, hatsarre orokorren bidez (Grimshaw 1990, Rappaport eta Levin 1988, Jackendoff 1990, Levin eta Rappaport 1995). Beste modu batean esanda, aditzak ezartzen dizkie rol tematikoak,  $\theta$ -rolak, bere argumentuei. Hauek dira hizkuntzalariek aipatzen dituzten  $\theta$ -rolak (Artiagoitia 2000tik hartua):

- *egilea*, predikatuak adierazten duen ekintza edo gertaeraren egilearen rola jokatzen duena. Egiletasuna nahimen edo borondaterarekin lotzen da oro har; beraz, nekez izango dira egileak izaki bizigabeak;
- *thema* edo *gaia*, predikatuak adierazten duen gertaerak edo ekintzak mugitzen duen pertsonak edo izakiak jokatzen duen rola;
- *jasaillea* (ingelesaz *patient*), predikatuak adierazten duen gertaera edo ekintza gertatzen zaion pertsonak edo izakiak jokatzen duena. *Egoera aldatetarekin* lotu ohi da, baina praktikan ez dira *gaia* eta *jasaillea* gehienetan bereizten. Guk ere, oro har, ez ditugu bereiziko;
- *esperimentatzailea*, predikatuak adierazten duen *egoera psikologiko* bat jasaten duen izakiak jokatzen duena;

---

<sup>1</sup> Berez aditzak, preposizioak eta izenondoak (izenondo batzuk) dira argumentu-egitura dutenak. Hemen, aditzen argumentu-egituraz bakarrik jardungo dugu.



Arreta berezia eskaini diete hizkuntzalariek hitz elkartu *sintetiko*ei, aditzetik eratorritako izena edo izenondoa buru dutenei (Williams 1981, Selkirk 1982, Lieber 1983, DiSciullo eta Williams 1987); behin baino gehiagotan, batera aztertuaz hitz eratorrietan (*idazle*) eta horiekin osaturiko elkartuetan (*nobela-idazle*) zer gertatzen den (Booij 1988, Varela 1990, Levin eta Rappaport 1988). Hizkuntzalari hauen proposamenak labur bilduaz:

- Subjektu argumentua (edo kanpo-argumentua) ezin da hitz elkartuaren barruan ase (Williams 1981, Selkirk 1982, Lieber 1983, DiSciullo eta Williams 1987). Kontrako adibideak eman ditu, ordea, Kiefer-ek (1992) hungarieraz.
- $X_i$  kategoria lexikoaren subjektu ez diren argumentu guztiak,  $X_i$ -en lehen mailako proiektzioaren barruan ase behar dira (Selkirk 1982).
- DiSciullo eta Williams-ek (1987), ostera, diote buru ez den osagaiak ase deza keela buruaren argumentuetako bat, baina ez duela hala behar nahitaez.
- V+N egituretan ez da adostasunik egon hizkuntzalarien artean: Selkirk-en (1982) ustez, buru den izenak ez du asetzen aditzaren argumentu-egitura; Lieber-ek (1983), berriz, horrelako egituretan, aditzak bere barne-argumentuak «lotu» behar dituela dio; bestela, eskuineko izena, aditzaren argumentu semantikotzat (lokatiboa, modua, baliabidea... adierazten duen argumentutzat) hartu beharko da.
- Buruak barne-argumentu bat baino gehiago hartzen duenean, hierarkian «beheren» dagoena egongo da hitz elkartuaren barran, eta «goren» dagoena kanpoan (Grimshaw 1990).

Hitz elkartu mota guztiak aztertzeak luzeegi joko lukeenez,<sup>3</sup> azter ditzagun oraingoan *izenondo* elkarte sintetikoak (hauek baitira osagaietako bat aditzetik sortua dutenak) eta *aditz* elkartuak.<sup>4</sup>

### 3. Izenondo elkarte sintetikoak

Horrela deituko diegu gramatiketan deitura batekin baino gehiagorekin ageri diren egiturei: izenondo elkartuen artean aztertu zituen Azkaratek (1990) deitura berezirik eman gabe, [izen bizigabea + partizipioa/izenondoa] egitura zutela zehaztuaz; hitz elkarte sintetikoetan sartu zituen Euskaltzaindiak (1991), A-x-tu egiturako egile elkarte osatuak moduan sailkatuaz; N + Adj egiturako elkartu exozentrikotzat hartu ditu, berriz, Hualdek (Hualde eta Ortiz de Urbina, argitaratzeaz), izenondoaren ordez partizipioa dutela osagai zehaztuaz.

#### 3.1. Hizkuntzalarien azterketa teorikoak

Morfologia Sortzailearen esparruan eginiko azterketetan ere elkarte sintetikotzat hartu dituzte hizkuntzalari batzuek bigarren osagai *-ed* partizipioa (partizipio pasiboa)

<sup>3</sup> *Aldizkari-banarzaile* eta *begi-mingarri* egiturako elkarteaz, ikus Azkarate (1995).

<sup>4</sup> Aipatu berri ditugun baieztapen horietatik batzuk bakarrik dagozkie, jakina, elkarte mota hauei.

duten egiturak. Areago, lan-sorta on bat bada horrelakoan argumentu-egitura eta theta-rolak aztertzen dituen, bereziki *-en* «atzizki pasiboa»z arduratu dena (Selkirk 1982, Lieber 1983, Fabb 1984, Hoekstra 1986, DiSciullo eta Williams 1987, Booij eta van Haften 1988, Spencer 1991, Mendikoetxea 1999).

Beste hizkuntzalari batzuentzat, aldiz, ez dago hain garbi ingelesez *homegrown* edo *handmade* motako egiturak elkarte sintetikoak diren. Selkirk (1982) eta Lieber (1983) har ditzakegu kontrako ikuspegi horien ordezkartzat. Selkirk-en ustez, buru ez den osagaia aditzaren «argumentu»tzat har badaiteke, «verbal compound» (gure «elkarte sintetiko») izango da elkartu osoa (*handwoven, timeworn, sunbaked*); lehen osagaia ez bada aditzak nahitaez eskatzen duen osagarria, egitura osoa, «root compounds» edo «lehen mailako» elkartuen pareko izango da (*homegrown*). Lieber-ek, ostera, nahiago du aditzaren barne-argumentuen eta «argumentu semantiko»en arteko bereizkuntzaren bidetik jotzea; guztiak lirakeke elkarte sintetikoak, desberdintasuna, lehen osagaia, barne-argumentu edo argumentu-semantiko izatean legoke. Nolanahi ere, ikuspegi desberdintasun honek ez du eraginik elkarte mota honetako izenondoen egituraren berri emateko.

Bestalde, aipatu ditugun ingeles izenondoen berri lexikoan ala syntaxian eman behar den, horrek ere sortu ditu azalpen-mota desberdinak. Baina modu batera edo bestera, hizkuntzalari guztiek onartu dute hor dagoen «partizipio pasibo»tik abiatu behar dela; hau da, partizipio pasiboaren argumentu-egituratik (Selkirk 1982). Bi argumentuko aditzen [EG, GAIA] edo [ESP, GAIA] egitura aldatu egiten da pasibo-egituran,<sup>5</sup> eta esan daiteke *-ed* atzizkiak (nahiz partizipio pasibo irregularrak, *worn* edo *made* bezalakoak) [GAIA] xurgatzen duela. Hau da, lehen kanpo-argumentu zena, barne-argumentu bilakatzen da; eta lehen barne-argumentu zena, berriz, kanpo-argumentu. Beraz,

- «egilea» edo «esperimentatzailea» dira gauzatu gabe geratzen direnak, buru ez den osagaiak ase ditzakeenak;
- izenondo sintetiko hauei dagokien izena, aditzaren [GAIA] argumentutzat hartuko dugu;
- buru ez den osagaia, aditzaren *argumentu semantiko* (Lieber, 1983) ere izan daiteke (beste hizkuntzalari batzuek nahiago dute horrelakoentzat *argumentu* hitza erabili ordez, *adjunktu* esatea): lokatiboa (*home-picked*), modua (*quick-picked*);
- buru ez den osagaia ezin daiteke aditzaren barne-argumentu gisa interpretatu.

Lau puntu baieztapen hauek nahikoa dira ingelesez aurki ditzakegun egitura sintetiko pasiboen berri emateko, bi multzotan banatzen baitira adibideak: *sunbaked* motakoak («baked by sun»), non buru ez den osagaia *egilea* den; eta *homebaked* motakoak («baked at home») non buru ez den osagaia *adjunktua* den, kasu honetan lokatiboa.

Azter ditzagun orain euskarazko egiturak.

<sup>5</sup> Ez dugu eztabaidatuko sintaxi-eragiketa ala eragiketa lexikoa den pasiboaren sorrera. Bestalde, Fabb-ek (1984), adibidez, syntaxian sortzen den pasiboa (rol tematikoak eman ditzakeena) eta pasibo lexikoa bereizi zituen (theta-rolik esleitzeko ahalmenik ez duena).

### 3.2. Adibideak

Nahiz partizipio/izenondoak morfologikoki desberdinak izan daitezkeen, multzo bakarrean aztertuko ditugu guztiak, *-i*, *-n* edo *-tu* motako partizipioa izateak ez baitu eraginik argumentu-egituraren auzian. Bestalde, sintagma osoa ematea beharrezkoa da, aditzaren argumentu-egitura nola asetzen den ikusteko.

- (4) a. baserritar basazia  
 b. gizon buru-jasoa  
 c. gizon buru-jantzia  
     gure arteko buru-yantzienari (Lizardi)  
     giza-alderdi buru-yantzienari eztiio gogoak eman (Lizardi)  
 d. lapur burumoztua  
 e. bekoki tximurtua: ulezuridun, eskuazaldu eta bekoki tximurtua (Bitaño)  
 f. ezpain-hausi: emen zegok ezpain-autsi (R. M. Azkue)  
 g. gogolanduak: gogolanduak gertu daude berezitasun orretarako (1924: *Itzaldiak. Irugarren Saila*)  
 h. lotsagald(a): lotsagaldurik balitz andik aizatzeo (Orixe: *Euskaldunak*)  
 i. uste-galdua: neskazar uste-galduek orain billa dute (Orixe: *Euskaldunak*)  
 j. zainil (zain hil): zainil, herbail, ergal, okilo eta huntz loti saldo bat omen ziren bakezaleak (Peillen: *Itzal gorria*)  
 k. khotxüska zola-galdua  
 l. atso hanka-hausia  
 m. esku-izkribatua: ausardia honi esker onik atera zuen bere “Diario de la Expulsión de los Jesuitas de España” egunkari ezku-izkribatua” (Goikoetxea Maiza)  
 n. gizagaixo erdal-kutsatua  
 o. ontzi oihal-haizatua  
 p. itsasoaren apar zuriak begi-liluratua bainazu  
 q. maitez bihotz-zabaldua (ibili)  
 r. lehoin gose-minduek  
 s. itsasoaren orroak lo-hautsiak<sup>6</sup> bainazu  
 t. emazte miñ-askatuegia  
 u. ur hotz-hautsia  
 v. neska maite-kutsatua  
 w. gezur jario: Azpeiti Azkoitiko boluntarioak ez dira falso eta gezur jarioak (Apalategi: *Euskal mutillak armetan*)  
 x. hitz-jario: zaharrago eta hitz-jarioago izaten omen gara, gainera (Mitxele-na)  
 y. ezti-jario: neurtitz ta esanaldi bero, gori, ezti-jarioak (Lizardi)  
 z. mamijario: lan mamijario errez oiek (Lizardi)  
 aa. lerre-jario (Lizardi, Orixe)  
 ab. irrijario: Ciotat irrijario (Orixe: *Mireio*)  
 ac. apar-jario (Orixe: *Mireio*)  
 ad. pipermin jario (Enbeita: *Gure Urretxindorra*)

<sup>6</sup> Horrela dator testuan, nahiz zaila izan *-k* atzikia ulertzea, hutsa ez bada behintzat.

### 3.3. Adibideen azterketa

Adibideak ikusi orduko ohartzen gara euskal izenondo elkartu hauek ez direla ingelesezkoak bezalakoak. Euskal adibideen egitura, argumentu-egitura, aztertzean, multzo hauek bereziko genituzke:

a) Badira gutxi batzuk, ingelesezko *sunbaked* motakoen parekoak, hau da, ezkerreko osagaiak *egilea* rol tematikoa hartzen duen kasuak. Hauek har ditzakegu egiazko pasibotzat, euskaraz pasiboaz hitz egin daitekeen neurrian behintzat; hauetan, *lehoi*, *gizagaixo* edo *neska*, barne-argumentuak ziren, orain kanpo-argumentu bilakatuak. Hau da, partizipio/izenondoak *gaia* barne-argumentua xurgatu duen heinean, rol tematiko bera hartu beharko du izenondoaren ezkerreko izenak. Elkarte sintetikoaren barruan ageri den ezkerreko izena, *goseak* (*mindua*), *erdarak* (*kutsatua*), *maiteak*, edo *maitez* (*kutsatua*) izango da orain barne-argumentu bilakatu den *egilea*:

(5) *lehoi gose minduak / gizagaixo erdal kutsatua / neska maite kutsatua*

Hemen sartzekoa da *har-joa* ere, batzuetan izen gisa ere erabili dena literaturan; beste batzuetan, predikatu sintagma osatuaz: *aspaldian har-joa, laster erori zen hiria*. Baina OEHko corpusari begiratu bat emanez gero, ohartzen gara «zerk joa» edo «zerez joa» dela egitura nagusia.

b) Askoz bakanagoak dira ingelesezko *handmade* motakoen parekoak. Bi adibide bakarrik aurkitu ditugu: *egunkari esku-izkribatua* eta *baserritar basazia* (bide batez esanahi nahiko lexikalizatua duena). *Izkribatu* aditzaren jatorrizko barne-argumentua, *egunkari*, da orain kanpo-argumentua (beste modu batera esanda, *egunkari* izenak R kanpo-argumentua badu,<sup>7</sup> *esku-izkribatu* izenondoak asetzen du kanpo-argumentu hori). Eta hitz elkartuaren barruan dagoen osagaia, buru ez dena, *bitartekoa* rol-tematikoa duena, *adjunktu* edo *argumentu semantiko* (Lieber 1983) dela esango genukeena; *baserritar basazi*-ren kasuan, berriz, «basoan hazia», lokatiboa da lehen osagaia.

c) Gehienak, ordea, ez dira egitura «pasiboak» (Azkaratek, 1993, «antipasibo» ekin alderatu zituen ondorengo egiturak). Aditzaren argumentu-egitura aztertuz,

— bi argumentuko aditzak aurki ditzakegu, *du* nahiz *zaio* laguntzailearekin erabil daitezkeen arren argumentu-egitura bera dutenak, [ONURADUNA, GAIA]

(6) *khotxüska zola-galdua / ezpain-hausi / hanka-hausi*  
*emazte mihi-askatu(egia) / bekoki-zimurtu*

«khotxüs kari zola galdu», «(horri) ezpaina hausia», «atsoari hanka hausia» edo «(horri) bekokia zimurtu» genuke azken batean. Grimshaw-k (1990) eginiko baieztapenetan oinarriturik, barne-argumentua, *gaia* rol tematikoa hartzen duena da hitz elkartuko lehen osagaia; eta «goren» dagoen argumentua, kanpoan geratu eta X» mailan asetzen dena.

Sintaxi-baliokideak ematekotan, predikazio-egiturak har ditzakegu goiko sintagma horien baliokide: *atsoak ezpaina hautsia du, horrek bekokia zimurtua du*, etab.

<sup>7</sup> Oroit gaitezen aditzak eskatzen dituen argumentuez gain, zenbait hizkuntzalarik (Sproat-ek 1985 edo Grimshaw-k 1990, besteak beste) defendatu dutela izen guztiek ere badutela kanpoko argumentua: R.

Zalantzak izan arren, [ONURADUNA, GAIA] argumentu-egitura eman diezaiekegu beste hauei ere.<sup>8</sup> *Galdu dute*,<sup>9</sup> *landu dute* edo *jaso du* esan arren, «galtze» horren, «lantze» horren eta «jasotze» horren *egile* baino zuzenagoa litzateke, gure ustez, *esperimentatzaile* direla esatea:

- (7) gizon buru-jasoa / gogolanduak, lotsagaldua, uste-galdua  
gizon buru-jantzia

Orobat, mota honetakoak dira *jario* bigarren osagai duten izenondo elkartuak:

- (8) boluntario gezur jarioak / muturra lerre-jario  
neurtitz ezti-jario / (gu izaten gara) hitz-jarioago

Guztietan, *gaia*, barne-argumentua da izenondo elkartuaren barruan asetzen dena, eta argumentu goren, *esperimentatzailea*, izenondo elkartuaren ezkerreko izenari dagokiona.

— hiru argumentuko aditzak, [EG, ONURADUNA, GAIA] egiturakoak:

- (9) lapur burumoztua / maitez bihotz-zabaldua (ibili)  
itsasoaren apar zuriak begi-liluratua bainazu (ni)  
itsasoaren orroak lo-hautsia bainazu / ontzi oihal-haizatua

Egitura iragankorrek ditugu, *egilea* (edo *arazlea*), *gaia* eta *onuraduna* (nahiz *kalteduna*) dutenak: «x-k lapurrari burua moztu», «apar zuriak niri begia liluratu», «orroak niri loa hautsi», «(haizeak) ontziari oihala haizatu», «maiteak niri bihotza zabaldu». Argumentu horietatik izenondoaren barruan asetzen dena, *gaia*, barne-argumentua da salbuespenik gabe. *Onuraduna*, sintaxian datiboak hartuko lukeen rol tematikoa, bi modura agertzen da:

- izenondo elkartuaren ezkerreko izen gisa: *lapur burumoztua*, *ontzi oihal-haizatua*  
— perpauseko aditz nagusiaren barruan, sintagma absolutiboan islatua: *lo-hautsia bainazu (ni)*, *begi-liluratua bainazu (ni)*, *bihotz zabaldua ibili*

*Egilea* edo ez da agertzen (*lapur burumoztua*), edo perpaus nagusian egile moduan, sintagma ergatiboan islatzen da (*itsasoaren orroak*, *itsasoaren apar zuriak*); gerta daiteke kasu instrumentala hartzea ere: *maitez bihotz-zabaldua*

### 3.4. Ondorioa

Hiru ondorio atera daitezke egin berri dugun azterketatik:

a) Euskaraz izenondo elkarte sintetikoaren egitura, gehienetan, izen elkarte sintetikoaren parekoa da honetan: buru ez den osagaia, barne-argumentutzat har daiteke, *gaia* rol tematikoa dagokiona.

b) Bestelako egiturak ere aurki ditzakegu; hauetan, buru ez den osagaiak *egilea* edo *lokatiboa*, *bitartekoa* rol tematikoa hartzen du (beraz, ingelesezko elkarte sintetiko «pasi-

<sup>8</sup> *Asko jakinak, gutxi jakinak...* egiturak ere hemen sar daitezke seguruenik.

<sup>9</sup> Subjektua [+gizaki] den neurrian, zalantza handiagoa sortzen zaigu, *khotxiiska zola-galdua* adibidean baino.

bo»en parekoak genituzke). Bigarren mota hau aurrekoa baino askoz urriagoa da euskaraz. Egitura «pasibo» izaerak azaltzen du, hain zuzen, ezkerreko osagaia lehen kanpo-argumentu zena (*lokatiboa, egilea* edo *bitartekoa*) izatea, eta lehen barne-argumentu zena, «gaia», kanpora pasatu izana, izenondo osoaren ezkerreko izen bilakaturik.

c) Beraz, morfologikoki egitura bakarrekoak izan arren, bi mota guztiz desberdin bereizi behar dira «izena + izond<sub>1</sub>[I] + izond<sub>2</sub>[partiz·[tu]<sub>partiz</sub>] izond<sub>3</sub> izond<sub>4</sub>» egituretan.

Azkenik, ezkerreko osagaitzat *gaia*, barne-argumentutzat hartuko genukeena duten elkarteak, izenondo diren neurrian, beste ikuspegi batetik ere azter daitezke: buru ez den izenak zenbateraino adierazten duen *berezko jabetza*, norberarena izateari utzi ezin diona (erdaraz «posesión inalienable» deitu zaiona).

#### 4. $A[I + A]_A$ egiturako aditz elkartuak

Egitura-mota bati baino gehiagori deitu zaio gure artean *aditz elkartu*, Euskaltzaindiaren (1991) lana lekuko. Villasantek (1974) «egiazko hitz elkartuak» eta bestelakoak bereiztean, bigarren multzoan sartu zituen «aditz perifrasi» deitu zituenak ( $x + arazi$ ,  $x + egin/eman/hartu$ ). Azkaratek (1990) eta Hualdek ere (Hualde eta Ortiz de Urbina, argitaratzean), bereizi egin dituzte *odolustu* modukoak eta *hitz egin* modukoak, bigarren hauek dituzten berezitasunak aipatuaz. Hemen alde batera utziko ditugu [izena + egin, eman, hartu] eta [izena + izan] (cf. *maite izan*) egiturakoak; egia da guztiek hartzen dutela gaur aditz kategoria, baina badira arrazoiak «elkartu» ez direla defendatzeko (Azkarate 1990, Hualde eta Ortiz de Urbina, argitaratzean); [izena + egin] egiturakoak dago-kenez, aditz ez-ergatibotzat hartzen dira, izenaren inkorporazioz sortutako predikatu konplexutzat (Ortiz de Urbina 1989, Oyharçabal 1992, Laka 1993).

Egiazko aditz elkartutzat hartuko genituzkeenak aztertuz, lehen baieztapena egitura-mota honen urritasunari buruzkoa izango litzateke. Inguruko hizkuntzekin alderatuz gero, badugu sorta bat, baina askoz emankorragoa da izen eta izenondo kategoriako hitzak sortzen dituen elkarketa.

##### 4.1. Adibideak

Hauek dira bildu ditugun adibideak:

- (10) *bihotz-ukitu* (Orixe, Etxaide), *eraberritu*, *esku-etendu* (Mogel), *gogobete* (Oihenart), *gurutziltzatu*, *hotzarritu* (Oihenart), *irudi-aldatu*, *indar-behartu* (Lizardi), *indarberritu* (Orixe), *irudiberritu* (Orixe), *itxuraldatu*, *odolustu*, *hostobakandu* (Lizardi), *hostoberritu* (Baserri), *hozberritu* (Orixe), *poz-berritu* (Orixe), *urase* (Orixe), *maiteberotu* (Orixe), *maitemindu* (Xalbador), *antzaldatu*, *gatzoztu* (Mirande), *larririki* (Ubillos), *odol-hoztu*, *herrialdatu*, *lokartu*, *hotzildu* (Mitxelena)
- (11) a. “piztu zala, haec gurutziltzatu zuen Jesu Christo” (F. J. A. Ubillos: *Christau doctriñ berri-ecarlea Christauari dagozcan eguia sinisbeharren-berria daccarrena*. Donostia: Hordago-Lur, 1978: 98)
- b. “Baña Christauac etciran batere bildurtzen: orregatic etsaiac aec castigatze-co, cebiltzan asmatzen castiguric gogorrenac... larririquitzen cituen, ta ateratzen cizten sabelac” (F. J. A. Ubillos: *Christau doctriñ berri-ecarlea*



*Christauari dagozan eguia sinisbeharren-berria dacarrena*. Donostia: Hordago-Lur, 1978: 115)

- c. "An aien aurrean irudi-aldatu zan" (Itzaizoz: *Jesu Kristo gure Jaunaren bizitza*, 241)
- d. "aiengana Maitagarriak maiteberotu baitziren" (Orixe: *Mireio*, 71)
- e. "Madalen»en malkoak ire oliondoek urasetzen dituela" (Orixe: *Mireio*, 137)
- f. "Begira gure ama ontzixkan, kuzkurka ta ozberritu bear ditun arraiak artzen" (Orixe: *Mireio*, 106)
- g. "Donamariak poz-berritzen dute Mirei" (Orixe: *Mireio*, 123)
- h. "Bero-bero ibili zen luzaroan gerra hotza; hotzildu zen poliki-poliki, epeldu gero eta are azkenik, hoztu ez ezik, baita izoztu ere" (K. Mitxelena: *Idazlan Hautatuak*, 375)
- i. "Zuk nai dezula-ta, besterik-gabe, indar-beartuta, zere asmakunde txaldan orretan geren buruok parregarri eztitugu ikusiko" (Lizardi: *Itz-lauz*, 30)
- j. "Zugaitzak ostoberritu dira" (Basarri: *Kantari nator*, 72)
- k. "Bere itzen zindotasunak (...) epai-maieko gizonak biotz-ukitu zitun" (Etxaide: *Joanak joan*, 70)
- l. "bere buruak odol-oztu ta onezkoak egin dituzte" (Y. Zaitegi: *Platon I. Oturuntza, Protagora, Menon*. Usurbil: Izarra inp., 1975: 165)
- m. "guero garija erne onduan, bihar da jorratu, escu-etendu, zalguia ta bedar char guztija aterateco" (J. A. Moguel: *Peru Abarca*. Durango: Gerediaga Elkarte, 1981: 150)
- n. "bardoen antzea gatzoztu zen izigarritan" (J. Mirande, 1976: *Jon Miranderen Idazlan Hautatuak*. Bilbo: Gero, 235)
- o. "Agur zuei bere, gure artetik goizegi errialdatu zaren Broussain ta Agirre" (Eusko Ikaskuntza, 1923: *Tercer Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastian: Eusko Ikaskuntza, 81)

#### 4.2. Adibideen azterketa

a) Adibideak dagokien testuinguruan irakurri orduko egin daitekeen lehen baieztapena hauxe da: egitura honetako aditz gehienak nor-motakoak dira; hau da, hitz elkartutik kanpo argumentu bakarra islatzen da (bestarik da zein rol tematiko dagokion aditzaren barruan, ezkerreko osagaiari):

- (12) irudi-aldatu zen, maiteberotu ziren, hotzildu zen,<sup>10</sup> hostoberritu dira, gatzoztu zen, herrialdatu zara, antzaldatu da, itxuraldatu da, indarberritu da, irudialdatu da, odolustu da, hostobakandu da

*Du* laguntzailearekin ageri diren bat baino gehiago ere inkoatibo/arazle oposizioan sartzen dira, oinarrizko erabilera inkoatiboa, egoera-aldaketa adierazten duena, izanik; balio arazle edo kausatiboari zor zaio laguntzaile trantsitiboa. Era-

<sup>10</sup> Adibidea ikusita agian egokiago litzateke *hotzil* + *-du* egitura ematea, izenondo elkartua izanik aditz bilakatzen dena; egitura horretara eramango gintuzkete ondoan dituen *epeldu*, *hoztu* eta *bero-bero ibili* aditzek. Horrela interpretatuz gero, *hotzil* izenondo kategoriako elkarte sintetikoak litzateke, «hotzak hil», 3.2. atalean aztertu ditugun *erdal kuisatu* edo *gose mindu*-ren pareko.

bilera honetan, aditz elkartuak bi argumentu islatuko ditu: bata barne-argumentua, egoera-aldaketa jasaiten duenari dagokiona; bestea, arazlea, kasu ergatiboa hartuko duena. Goiko aditz guztiek onartuko lukete erabilera bikoitz hau (Sarasolak (1996) gehieneri *da/du* erregimena ematen die):

- (13) malkoek hire oliandoak urasetzen dituzte  
 Donamariak Mirei poz-berritzen dute  
 hitzen zindotasunak gizonak bihotz-ukitu zituen

b) *Du* laguntzailea hartzen duten beste batzuk ezingo genituzke inkoatibo/arazle oposizioan sartu; egokiagoa dirudi *egile* ergatiboa eta *gaia/jasaillea* («theme» eta «patient» rol tematikoen arteko bereizketa onartuko bagenu, «patient» dela esan genezakeena) absolutiboa dutela esatea:

- (14) gurutziltzatu zuten, larririki (larru-ireki) zituzten, (bere buruak) odol-oztu dituzte

c) Badira bi adibide jokatu gabeko aditza dutenak, dela partizipioa, dela aditzondoak:

- (15) indar-behartuta, esku-etendu

Lehena aditz jokatu gisa erabiltzekotan, *indar-behartu gaituzte*-edo esango genuke, nekez *indar-behartu gara*. Bigarrena, zalantzarik gabe, *garia esku-etendu dute* izango litzateke. Beraz, hauek ere, b) sailean sar ditzakegu.

d) Azken batean, egitura elkartua aditz kategoriakoa den heinean, sintaxian islatuko du bere argumentu-egitura. Baina aditz elkartuaren argumentu-egitura bat al dator buru den aditzarenarekin? Hau da, esango al genuke *zuhaitzak berritu dira* edo *zuhaitza bakandu da*, edo *gure artetik goizegi aldatu zara*? Ezezko biribila ematea zaila bada ere, ez da erraza baietz erantzutea inolako zalantzarik gabe; besteak beste, Sarasolak (1996) *du* erregimena ematen dio *berritu* aditzari, eta *zuhaitzak bakandu* «adaxkak moztu» litzateke, *du* laguntzailea eskatzen duena, beraz. Hiztegi Batuan, ordea, *berritu*, *da/du* motako aditza dela esaten zaigu. Honek guztiak, aditz elkartuko lehen osagaia aztertze-*ra* garamatza, zein rol tematiko dagokion aztertzeraz.

d) Buru *ez* den izenak hartzen duen rol tematikoa modu batekoa baino gehiagokoa da:

- *lokatiboa* da *gurutziltzatu* aditzean (aldi berean *iltzatu* ere eratorria denez, oin den *iltze* aditzak adierazten duen ekintzaren *bitartekoa* litzateke; egitura lexiko-kontzeptualak jasoko luke erlazio hori, esanahia zatikatu eta irudikatzean). Aditzak perpausean islatzen dituen argumentuak, berriz, lehen esan dugun bezala, *egilea* eta *gaia* (kasu honetan «jasaillea» dela esan dezakeguna)
- *larririki* (larru-ireki) eta *ukitu* aditzetan, «etsaiek kristauei larrua ireki» eta «zindotasunak gizonari bihotza ukitu» egitura dugu. Barne-argumentua, *gaia*, da aditz elkartuan lehen osagai gisa biltzen dena; eta beste biak, *egilea* eta *onuraduna* («kaltetua» lehen adibidean), perpausean islatzen direnak, ergatibo eta absolutibo kasua hartuaz hurrenez hurren:

- |                                     |   |                                   |
|-------------------------------------|---|-----------------------------------|
| (16) etsaiek kristauei larrua ireki | > | etsaiak kristauak larririki       |
| <i>egilea kaltetua gaia</i>         | > | <i>egilea kaltetua (gaia)</i>     |
| zindotasunak gizonari bihotza ukitu | > | zindotasunak gizonak bihotz-ukitu |
| <i>egilea onuraduna gaia</i>        | > | <i>egilea onuraduna (gaia)</i>    |

— *aldatu* aditza buru dutenetan, bi modutakoa da ezkerreko izena:

- *irudi*, *itxura* edo *antz*, «berezko jabetza»ren adierazletzat har ditzakegun izenekin, «irudia, itxura, antza aldatu zaio (norbaiti)» proposa dezakegu, *gaia* izanik aditz elkartua osatzen duen osagaia. Eta *onuraduna*, argumentu gorena, sintaxian subjektu moduan islatzen dena, aditz ez-akusatiboa sortuaz.
- «leku» adierako *toki*, *leku* edo *herri* izenekin, berriz, «norbait herriz, tokiz, lekuz aldatu» proposa dezakegu; baina horrek ez ditu, gure ustez, argumentuen rol tematikoak aldatzen. Aldaketaren *gaia* lekua izango da oraingoan, ez «norberaren berezko ezaugarria» aurrekoetan bezala. Beste aukera bat ere bada «tokia, herria, lekua... aldatu du», hots, *egilea*, *gaia* dugula pentsatzea; baina inolako zalantzarik gabe *egilea-gaia* diren aditzekin ez da horrelako aditz elkaturik sortzen (*umeak liburua irakurri* > \**ume liburu-irakurria*). Horrek adieraziko luke buru den aditza ez dela egiazko trantsitiboa, *egile-gaia* argumentu-egiturakoa. Nolanahi ere «gaia» rol tematikoa da aditz elkartuaren barruan geratzen dena. Eta horrek eragiten du «tokia aldatu du» > *tokialdatu da*, argumentu bakarra geratzea sintaxian gauzatzeko.
- *berritu* buru dutenetan ere azterketa bera egingo genuke. «Zuhaitzari ostoa berritu zaizkio», «indarra berritu zaio», «irudia berritu zaio», «poza berritu zaio»... [*gaia*]<sub>I</sub> + *berritu* izanik aditz elkartuaren osaera, eta «onuraduna» aditz horri geratzen zaion argumentu bakarra, sintaxian islatuko duena. Balio arazlean, «poza berritu diote»:

- |                                  |   |                                   |
|----------------------------------|---|-----------------------------------|
| (17) zuhaitzari ostoa berritu    | > | zuhaitza ostoberritu da           |
| <i>onuraduna gaia</i>            | > | <i>onuraduna (gaia)</i>           |
| Mireiri poza berritu             | > | Mirei pozberritu da               |
| <i>onuraduna gaia</i>            | > | <i>onuraduna (gaia)</i>           |
| Donamariiek Mireiri poza berritu | > | Donamariiek Mirei pozberritu dute |
| <i>arazlea onuraduna gaia</i>    | > | <i>arazlea onuraduna (gaia)</i>   |

— *bakandu* eta *hustu*-rekin osatutako aditz elkartuak ere berdin azter daitezke, baita *hoztu* buru duena ere:

- |                                       |   |                         |
|---------------------------------------|---|-------------------------|
| (18) zuhaitzari ostoa bakandu zaizkio | > | zuhaitza ostobakandu da |
| <i>onuraduna gaia</i>                 | > | <i>onuraduna (gaia)</i> |
| hilotzari odola hustu zaio            | > | hilotza odolustu da     |
| <i>onuraduna gaia</i>                 | > | <i>onuraduna (gaia)</i> |
| antzeari gatza hoztu zaio             | > | antzea gatzoztu da      |
| <i>onuraduna gaia</i>                 | > | <i>onuraduna (gaia)</i> |

— *ase*-rekin dugun *urase-ri* dagokionez,

- |                              |   |                         |
|------------------------------|---|-------------------------|
| (19) oliondoak urez ase dira | > | oliondoak urase dira    |
| <i>onuraduna gaia</i>        | > | <i>onuraduna (gaia)</i> |

Aditz ez-akusatibo, inkoatiboa, arazle bihurtzean, *malkoek oliondoak urasetzen dituzte*.

— Badira bestelako rol tematikoa hartzen duten izenak ere, *esku-etendu*, *indar-behartu* edo *maiteberotu* aditzetan. Oinarrian argumentu-egitura hau eta rol tematiko hauek proposatuko genituzke:

(20) (norbaitek) garia eskuz etendu	>	(norbaitek) garia esku-etendu
<i>egilea gaia bitartekoa</i>	>	<i>egilea gaia (bitartekoa)</i>
(zuk) (gu) indarrez behartu	>	(gu) indar-behartu(ta)
<i>egilea gaia bitartekoa</i>	>	<i>gaia (bitartekoa)</i>
Maitagarriak maitez berotu ziren	>	Maitagarriak maiteberotu ziren
<i>jasaillea bitart./arazlea</i>	>	<i>jasaillea (bitart./arazlea)</i>

Azken adibidea, «maiteak berotu» bezala ere uler daiteke, modu batean edo bestean azken batean interpretazio «pasiboa» eman diezaiokegu *maiteberotu* aditzari, izenondo sintetikoetako *gose-mindu* edo *erdal kutsatu*-ren parekoa. Interpretazio bera emango gene-nioke *maitemindu* aditzari ere.<sup>11</sup>

### 4.3. Ondorioak

Labur bilduaz, bi argumentu-egitura mota eta bi rol tematiko sorta ikusi ditugu adibideetan eta horien azterketan:

a) Gehienetan *onuraduna-gaia* rol tematikoak ditugu, (*egilea* edo *arazlea*) aukerakoa izanik. «Gaia» da aditz elkartuan buru ez den osagaiak hartzen duen rol tematikoa, eta *onuraduna* subjektu gisa islatzen dena (edo *egilea* zein «arazle» subjektu ergatibo gisa, eta *onuraduna* objektu gisa). Azken batean, aditz elkartu hauek inkoatibo / arazle oposizioan sartzen dira.

b) Kasu gutxi batzuetan, *egilea-gaia-lokatiboa/bitartekoa* argumentu-egituratik abiatuaz, adjunktua, *argumentu semantikoa* (Lieber 1983) da aditz elkartuko lehen osagaiak hartzen duen rol tematikoa. Beraz, sortzen den aditz elkartua, *egilea-gaia* argumentu egitura duen aditz iragankorra da.

Diogun, bidenabar, adibide horietan ez dugula inolako argudiorik aurkitu, euskaraz izen inkorporazioa (Baker 1988) dagoela defendatzeko.

### Bibliografia

- Artiagoitia, X., 2000, *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Arabako Foru Aldundia-EHU.
- Azkarate, M., 1990, *Hitz Elkartuak Euskaraz*. "Euskal Filologia" Bilduma, 3. zbk. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- , 1993, "Compound Nouns and Generative Morphology: some data", J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg), *Generative Studies in Basque Linguistics*, Current Issues in Linguistic Theory, 105. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins; 221-242.
- , 1995, "Sobre los compuestos de tipo sustantivo + sust/adj de verbal en euskera", In P. Goenaga (arg), *De Grammatica Generativa*, Anejos de ASJU, XXXVIII. Gasteiz / Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea-Gipuzkoako Foru Aldundia: 39-50.
- Baker, M., 1988, *Incorporation. A Theory of Grammatical Function Changing*. Chicago and London: The University of Chicago Press.
- Booij, G., 1988, "The Relation between Inheritance and Argument Linking: Deverbal Nouns in Dutch". In M. Everaert et al. (arg), *Morphology and Modularity*. Dordrecht: Foris: 57-73.

<sup>11</sup> Agian *maitemin* izenetik eratorritako aditzat ere har dezakegu.

- Booij, G. and T. van Hatten, 1988, "On the external syntax of derived words: evidence from Dutch". In G. Booij eta Marle van J. (arg), *Yearbook of Morphology 1988*. Dordrecht: Foris: 29-44.
- Chomsky, N., 1981, *Lectures on Government and Binding*. Berlin / New York: Mouton de Gruyter (1993).
- DiSciullo, A.M. eta E. Williams, 1987, *On the Definition of Word*. Cambridge MA: MIT Press.
- Euskaltzaindia, 1991, *Hitz-Elkarketa/3*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fabb, N., 1984, *Syntactic Affixation*. Doktorego tesia. MIT.
- Grimshaw, J., 1990, *Argument structure*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Hoekstra, T., 1986, "Deverbalization and inheritance", *Linguistics* 24, 549-584.
- Hualde, J. I. and J. Ortiz de Urbina, arg., *A Grammar of Basque*, (argitaratze).
- Jackendoff, R., 1972, *Semantic Interpretation in Generative Grammar*. MIT Press.
- , 1990, *Semantic structures*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Kiefer, F., 1992, "Compounding in Hungarian", *Rivista di Linguistica* 4, 1; 61-78.
- Laka, I., 1993, "Unergatives that assign ergative, unaccusatives that assign accusative", *MIT Working Papers in Linguistics 18: Papers on Case and Agreement 1*. Cambridge, MA: Department of Linguistics and Philosophy, MIT: 149-72.
- Levin, B. eta M. Rappaport, 1988, "Nonevent *-er* nominals: a probe into argument structure", *Linguistics* 26, 1067-1083.
- , eta —, 1992, "The lexical semantics of verbs of motion: the perspectives from unaccusativity". In I. M. Roca (ed), *Thematic structure: its role in grammar*. Dordrecht: Foris, 247-269.
- , eta —, 1995, *Unaccusativity: at the syntax-lexical semantics interface*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Lieber, R., 1983, "Argument-linking and compounds in English", *LI* 14, 251-285.
- Mendikoetxea, A., 1999, "Construcciones inacusativas y pasivas". In I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*. Madrid: Espasa, 1575-1629.
- Ortiz de Urbina, J., 1989, *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Oyharçabal, B., 1992, "Structural Case and Inherent Case Marking: Ergaccusativity in Basque". In J. Lakarra eta J. Ortiz de Urbina (arg), *Syntactic Theory and Basque Syntax*. ASJUren gehigarriak. Donostia: 309-342.
- Rappaport, M. and B. Levin, 1988, "What to do with  $\theta$ -roles". In W. Wilkins (ed.), *Syntax and Semantics 21: Thematic relations*. New York: Academic Press, 7-36.
- Sadler L. eta A. Spencer, 1998, "Morphology and Argument Structure". In A. Spencer and Zwicky, A. (arg.), *The Handbook of Morphology*. Oxford: Blackwell: 206-236.
- Sarasola, I., 1996, *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa Fundazioa.
- Selkirk, E., 1982, *The Syntax of Words*. Linguistic Inquiry Monographs 7. Cambridge, MA: MIT Press.
- Spencer, A., 1991, *Morphological Theory*. Blackwell.
- Sproat, R., 1985, *On Deriving the Lexicon*. Doktore tesia. MIT.
- Van Valin, R. D., 1990, "Semantic parameters of split intransitivity", *Language* 66, 221-260.
- Varela, S., 1990, "Composición nominal y estructura temática", *Revista Española de Lingüística* 20 (1), 55-81.
- Villasante, L., 1974, *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Oñati: Editorial Franciscana Aránzazu.
- Williams, E., 1981, "Argument Structure and Morphology", *The Linguistic Review* 1: 81-114.
- Zaenen, A., 1993, "Unaccusativity in Dutch: integrating syntax and lexical semantics". In J. Pustejovsky (ed), *Semantics and the lexicon*, Dordrecht: Kluwer, 129-161.